

## **UDAL EUSKALTEGIEN KOMUNIKAZIO ETA MARKETING-ERAKO JARDUERA ILDOAK CYP IKERKUNTZA TALDEA, 1997**

**Joxe Manuel Odriozola**  
*Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea*

Ikerkuntza talde honen azterketa hau Udal Euskaltegien eskariak egingo dako lana da. Eta helburu zehatza bezain argia du egileek beraiek dioten bezala: «*Ikerlanaren helburu espezifikoa hauxe da: prospekzio soziologikoen bidez argumentatzea udal euskaltegiek hemendik aurrera eraman behar duten jarduera-lerro estrategikoa **irudi eta komunikazioaren arloan***».

Ikerkuntzaren xedeak bost puntutara mugatu dituzte. Lehenik eta behin, helduen esparruan euskara ikasteko eta hobetzeko motibazioa ezagutu nahi izan da; motibazio horien izaera-ezaugarriak zeintzuk ziren jakiteko hauen eraginkortasuna ezagutu; zeintzuek eragiten duten eta zeintzuek eragozten duten euskararekiko atxikimendua; euskararen balorazio soziala zertan den jakin nahi izan da, orobat, giza harremanetan eta lan-esparruan bere lekunea zehazki hautemateko; ikerkuntzarako erabilitako metodologiaren arabera (metodologia kualitatiboa), talde jakin batzuek gai hauen inguruan pentsatzen zutena xehezu nahi izan da: udal euskaltegiei buruzko iritzi-irudia, darabilten programazioaren gaineko irizpena, ikas-metodologiak dituzten burutapenak...; Udal Euskaltegien irudian eta komunikazio-arloan egin daitezkeen hobekuntzak begiz jo, euskararen merkatuan sartzeko lagungarri izan litezkeen jarrerak aztertu...

Taldeak hautatu duen ikerbide metodologikoen alorrean «Planteamendu metodologikoen» atala daukagu. Orain dela urte batzuk ez omen

zen ezaguna, merkatu eta gizarte-ikerketan, metodologia honen erabile-  
ra, baina lortu bide dituen arrakastak lortuta, gero eta errotuagoa omen  
dago eremu honetako azterketa enpirikoetan. Jesus Ibañezen eskutik za-  
baldutako metodologia honek, dirudienez, gizarte-jardunaren alderdi  
koalitatibo esanguratsuak atzemateko bide egokia eskaintzen du.

Dakienak jakingo du, baina ez dakienik egongo delakoan, goazen meto-  
dologia honen bizkarrezurra agertzea. Era honetara definitzen dute bere  
irizpena: *«Metodologia honek motibazio eta jarrerak ikertzeko bereziki balio  
du. Ikertutako pertsonen hitza ematen die, inolako aurreiritzirik gabe mintza  
daitezten. Horri esker, ikerketa maila handitzen da, ikertzailearen ikuspun-  
tuez eta bezeroaren eskakizun berariazkoen gain, bestelako ikergai batzuk ager-  
tzen dira. Metodologia honek diskurtso dominatzailea finkatzen laguntzen  
digu, baita horien aldaketak, horrelakorik dagoenean. Diskurtso hori osatzen  
duten elementuak ezagutu eta, horren barruan, euskararen kokapuntua aurki-  
tzeko bide ematen digu, motibazioen eta ideien munduan sakontzeko, horixe  
baita ageriko jarreraren oinarria».*

Esaten zaigunez, aditu baten ardurapean eztabaida-taldeak osatzen dira  
gai baten ingurumarian. Iritzien arteko dialektika abiadan ipintzen omen  
da laurogeita hamar minututan zehar, euren arteko aldeak nabarmentze-  
ko. Horrela, *«kontsentsu bat lortzeko asmoz eztabaidatzen da (gizarte mai-  
lan kontsentsurik badago, taldean ere antzeman beharko da batasun hori)»* .  
Lehengai horren gainean eraikiko da gero «diskurtso sozialaren hizkun-  
tza»

Sei taldetan egituratu da metodologia honen jarduna. Eskualdez eta lanbi-  
dez jatorri ezberdinetako taldeak osatu dira Gipuzkoan egindako ikerke-  
ta soziolinguistiko honetan. Besterik ezean, eman ditzagun taldeen lanbi-  
de-jatorriak: administrazio eta zerbitzuetako langileak; industrietako  
enplegatuak; hizkuntza erabiltzen ez duten euskaldunak; etxeko andre  
eta urte gutxiko jubilatuak; gazte langabetuak eta gurasoak.

Talde hauetako jendeak nola ikusten du euskararen egoera soziolinguis-  
tikoa? Jende honek ez bide dauka datu objektiborik esaten duena esate-  
ko, baina esaten duen horrek bere eragina dauka euskararekiko jarrera eta  
jokamoldean. Beraz, iritzi subjektiboaren isladapena ez litzateke ezereze-  
tik sortua, euskararen gero eta gizarte-erropen handiagori datzekion erre-  
flexua baizik. Euskararen gizarte-ezarpenaz irizpen baikorra dutenen us-  
tez, gure mintzairaren eskutik hainbat eta hainbat gizarte-aukera irekit-  
zen zaizkio euskal hiztunari. Esate baterako: *«El hecho de no saber euskera  
en determinados espacios, limita en el entender de nuestros interlocutores no  
vascoparlantes, las vivencias personales y sociales. Así, en estos espacios sin-  
gulares, el euskara cumpliría realmente la función de "vínculo social"; factor  
mediatizador de la plena socialización de los individuos. No es una condición  
determinantemente excluyente, pero sí limitadora para quienes desean un en-  
tronque social y cultural con su comunidad».*

Euskarari buruz jarrera eta balorapen positiboa duenak, hots, bere  
argudioen oinarri ideologikoak mintzaira honekiko atxikimendua

sortarazten dionak, ez du «imposizioaren» mamurik somatzen bizi duen egoera soziolinguistikoan. Nolabait esateko, barrenak agintzen dio hori: barrutik datorkio presioa, ez kanpotik, beste batzuek berehala esango digutenaren aurka. Alde nabarmena dago Ermutik Zumaiara: inguru-nearen eragina faktore erabakitzailea ageri da ezinbestez. Honela mintzatu zen, horietako eztabaida-talde batean, partehartzaile hau: «*Ya no es solamente la obligación, es que estás viviendo en un entorno euskaldun, estás viviendo en Euskadi y lógicamente te sientes evitado... en Ermua, que he venido con 11 años a Ermua y he estado toda la vida viviendo en Ermua, no he tenido ese problema, pero desde que estoy en Zumaia si que tengo ese problema, porque el ambiente es totalmente distinto y me siento con problemas en el vecindario, en la cuadrilla que tienen que hablar erdera porque yo no entiendo euskera. Luego no puedo participar en cantidad de cosas en el pueblo porque se hacen en euskara*». Erdaldun baten egiaztapena: euskara ez jakiteak sortzen dizkion gizarte-mugak, baina ez du haatik euskaldunekiko herrarik azalduko.

Diskurtso sozialen sail honetan, bigarren honek, aurrekoak ez bezala, hizkuntz gatazkaren zantzu garbiak hautematen ditu. Soziologo adituaren ustez jarrera negatibo hau islatzen da diskurtso honetan: «*La "cerrazón" (euskaltzaleen jokamolde hertsia) de unos, constituiría la matriz de un conflicto latente (no exteriorizado) que conllevaría un cierto nivel de rechazo al aprendizaje de los otros (dimensión manifiesta)*». Hizkuntz gatazkaren bidegurutze honetatik ateratzeko euskararen ausua maila «emotiboan» planteatu behar omen da. Obligazioaren araua ezabatu, ezarpenaren indarra desegin: hau da, maila indibidualean nork bere hautua egin dezala hizkuntzen arteko jokoan. Diskurtso sozial salatari honen lekuko, hona hizkuntz ideologia jakin baten lekukotasuna: «*Esto del euskera es todo ideología. Así como en Galicia la gente habla gallego porque son gallegos, aquí se habla mucho por que hay que hablar, por obligación. Yo pienso que de la misma manera que nosotros que no sabemos euskera y somos un elemento distorsional. También hay gente que habla euskera y no se dirige a la gente en castellano porque mantiene una cerrazón total de decir: "yo hablo en euskera y chico o aprendes o..."*».

Diskurtso sozialaren jarrera hau ikusita, honako proposamena egiten zaie Udal euskaltegiei jende-mota hau euskararen ingurura erakartzeko. Arestian genioen bezala, esparru «emozionalean» ezarri behar omen da euskararen beharra, eta ez «tentsioaren» estrategian. Estrategia pedagogikoak, beraz, honakoa izan behar luke: **emozioa - kultura - pribatua - gizabakoa - bihotza (sentimendua)**; eta ez, beste hau: **tentsioa - politika - publikoa - kolektiboa - intelekttoa (arrazoia)**. Lehenengo ardatz pedagogikoak erakarri egiten duen bitartean, bigarrenak uxatu egiten omen du. Hala ere, bihotzaren eta arrazoaren arteko dialektika honetan, gauza guztiak ez bide daude argi eta garbi diskurtso mota honen barnean ere: «*En general, aparte que si no habría esa tensión en mucha gente, pues, me gustaría saber donde estaría el euskera. Yo cuando me pongo con el corazón entiendo el euskera, cuando me pongo con la razón intento comprenderlo y no lo entiendo*

*pero si que la lengua tiene que mantenerse, no solamente porque sea una lengua sino porque es una cultura de un pueblo, con una tradición y yo quiero aprender la lengua desde ahí. Si no me coloco ahí no aprendo ni euskera, ni castellano, ninguna. Hay dos extremos, la gente que se niega a aprender euskera y al contrario, la gente que si no hablas en euskera te hace un vacío. Los dos extremos se juntan en la necesidad».*

Eztabaida talde guztietan azpimarratu den auzi bat kulturari dagokio. Zehazkiago esateko, euskararen ikaskuntzak euskal kulturarekin izan behar lukeen lotura aipatzen da sarritan. Hizkuntzaren jabekuntza, besterik gabe, maila abstraktuan, ez da erakargarria egiten ikasle askorentzat. Soziologoaren oharmen honek garbi asko planteatzen du arazo pedagogikoa: *«Finalmente, hay una línea que cruza consensuadamente todos los sectores estudiados, es aquella que sitúa al euskera no como una lengua abstracta, sino entroncada con la cultura. Así, saber euskera sería satisfactorio en la medida que posibilite un aspecto más "transcendente" como vivir en euskera. Es decir, un cambio por el que pasa toda la existencia de los individuos».*

Zentzu honetan honako gomendioa egiten zaie udal euskaltegiei: *«se debe incidir en una comunicación que ligue el aprendizaje del euskera, a la vivencia de la cultura vasca en conjunto y de la local en particular».* Hizkuntza-formak (sistema abstraktua) kultura-edukia (adierazien sistema) parez pare behar duela dirudi. Baina kulturari buruzko zehaztapen argigarri batekin: hau, aldi berean, ez dadila sentimendurik sortzen eta pizten ez duen jakite-forma huts izan, hizkuntzaren atzean dagoen herri-komunitate baten bizipen-mamia baizik. Hizkuntz atxikimendua ez baitator mintzairatresna hutsetik, mintzaira-kultura-errealitateetik baino.

Motibazioaren osagaiak oso lausoturik bide daude. Ez da aise jakiten, motibazioaren azken gakoa, zertan den: *«existe un factor difuso al analizar el entorno de la motivación».* Lausotasun honek esplikatu luke agian horrenbeste aldiz eztabaidatu izan den motibazio-motaren gezurreko agerpena. Alegia, auzigai honen inguruan egin diren inkesta soziologiko gehienek inoiz ez dute motibazioaren errealitate ezkutua argitara ematea lortu. Eta, dakigunez, maizenik agertu izan den motibazio afektibo-ideologikoaren nagusitasunak ez dauka zerikusirik euskara-ikasleak «bizi» duen errealitatearekin. Ondoko hitzok, ildo horretan, aski adierazgarriak dira: *«Lo sentimental, aquello que les da pertenencia de grupo, de nación, es un factor que valoran para aprender euskera. Pero, reconocen que aquellos que lo estudian lo hacen por una dimensión más pragmática (aquella que en parte aparece como no deseada): aprender para encontrar trabajo».*

Ikerketa empiriko honen emaitzetan paraturik, nik neuk, besteak beste, honako ondorio hau azpimarratuko nuke. Euskararen gainean dagoen diskurtso sozialak (kasu honetan euskararen ikaskuntzarekin alde edo moldez lotuak dauden erdaldunak) hizkuntz-gatazkari buruz duen iritzia eta jarrera gehien batean alderdikoia da. Ez du erreparatzen bi hizkuntzek izan duten historiarik, eta ezerezetik abiatzen da, aurretik ezer

gertatu izan ez balitz bezala: diskurtso hau ez da gai hizkuntzen arteko asimetria sortarazi duen zapalkuntza basatia antzemateko. Horrekin batera, esango nuke, euskararen balioztapen soziala egiterakoan, kontraesan sakona dagoela ikas-estrategiatzat planteatzen den bidean. Izan ere, alde batetik, esango zaigu, ez dela biderik egokiena euskararen dimentsio kolektibo-soziala aintzat hartzea hizkuntz egoera bere onera ekartze-ko («*hay consenso en situar el euskera en el ámbito de lo emotivo*»). Norbanakoaren auzia denez, maila horretako askatasun-etikaz jardun beharra dago. Baina, beste alde batetik, aldi berean, zera esango zaigu: euskara ikasteko motibazio-bideen artean, azken buruko zioa, ez dela esparru emotiboan kokatzen dena izaten, eragile pragmatikoen eremuan baizik. Zertan gara, horrenbestez? Bai, baina ez; ez, baina bai. Izan gaitezten objektiboak (eta esparru subjektiboak ere objektiboak bezain erreala izan daitezke), eta aitortu dezagun, euskara ikasteko motibazio andana oraindik ere instituzionalizatu gabe dagoela, Talcott Parsons-ek behinola ondo baino hobeto zioen bezala. Soziologo estatubatuarrek gaztelaniara itzulia dagoen lan batean zera dio: «*Sólo en virtud de la internalización de valores institucionalizados tiene lugar una auténtica integración motivacional de la conducta en el sistema social; sólo así los "más profundos" estados de la motivación quedan pertrechados para el cumplimiento de las expectativas del rol. Sólo cuando éste ha tenido lugar en un alto grado es posible decir que un sistema se encuentra altamente integrado, y que los intereses de la colectividad y los intereses privados de sus miembros constituyentes se aproximan a la coincidencia*».

Non dago, oraingoz, euskara-ikaslearen eta gizarte-sistemaren bateragarritasuna eta hurbiltasuna haren motibazioa benetakoa izateko? Zeren, jakina, lanerako euskara eskatzeak ez du esan nahi horregatik euskara ikasten duenak benetako motibazioa daukanik. Eta, nola ez, beste horrenbestetsu gertatzen zaio motibazio politiko-ideologikoagatik ari denari. Motibazio-mota honen baloreak, maila sinbolikoan ez bada, ez baitaude txertatuak gizarte-instituzio hegemonikoetan. Kasu honetan ere bereizirik dabilta norbanakoaren eta botere-erakundearen interesak. Halaz guztiz ere, nazio-identitatearen motibazio-erak badu, dudarik gabe, aurrekoak ez duen dimentsio subjektibo tinkoagoa. Euskararen erabilera, horregatik, azkeneko bide honetatik bakarrik etor daiteke, motibazio instrumental-pragmatikoak ez baitauka kidetasunik egungo gure gizarte-sisteman nagusi diren baloreekin.